

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Athleticen,
bidea egiten**

Kaixo herrikide!!!

Martxoan sartu garenez, aipatze-koa da Emakumeen Egunaren bueltan hainbat ekintza antolatu direla herrian. Tartean, ohikoa den emakumeen afaria (atzean egite-ara). Horrez gain, Mus denboral- dia ere martxan dago eta Lapa

Txapelketa jokatu da martxoko azken hiru ostiraletan.

Claudia Fernandez futbolariari egindako elkarrizketa ere bildu dugu ale honetan, eta baita beste hainbat kontu ere. Espero dugu gustokoa izatea!



Euken Ostolaza tenorea hil da

Urtarrilaren 28an hil zen Eukene Ostolaza Zamora tenorea (Igeldo, 1961) gaixotasun baten ondorioz. Orain dela urtebete pasatxo, 2021eko abenduan, elkarrizketa egin genion Orri Informatiborako eta bere musika ibilbidearen berri eman zigun, besteak beste.

Solfeoa eta lehen musika hastapenak Igeldon egin zituen Martzelino Arrazola eta Fabian Loidi apaizekin. Kresala dantza taldean txistulari hasi zen 1979an, Jose Ignazio Ansorenarekin. Txistulari gisa aritu zen bere anaia Iñakirekin Igeldon, Izpi Berri dantza taldean, Frantziara joan zen arte.

1982 urtean Orfeo Donostiarran hasi zen ikasten abeslari izateko. 1989an, Gipuzkoako Foru Aldundian zeukan lanbidea utzita Frantziara jo zuen musika ikasketak sakontzera, lehenik Lyongo Musika Kontserbatorioan eta, geroago, Versailles-eko Centre de Musique Baroque ikastetxean. Kontratenore moduan aritu zen hasiera hartan. Handik aurrera, tenore erregistroan egin zuen bere ibilbide musikal osoa.

Estrasburgoko operaren abesbatzako kide izan zen bi urtez, eta gero, Parisko Operan bakarlarititulatzen izan zen hiru urtez. 2000 urtean uztea erabaki zuen «askatasun faltagatik». Ordutik Le Choeur de Radio France abesbatzan aritu zen.

Ahotsarekin musika egiteaz gain, harpa jotzen zuen eta musika talde bat zeukan Donostian: Ortzian. Taldeak kontzertua eskaini zuen otsailaren 25ean Antiguan, Ostolazaren omenez.



Azken eskeetan herritar ugari hartu dute parte; oso arrakastasuak izan dira.

Bertizera irteera egingo dute Gabon Eskean ateratakoek

Aurreko urteetan ez bezala, aurten irteera bat antolatzea erabaki du Gabon Eskea antolatzen aritu den guraso taldeak. Apirilaren 1-2 egunetan joango dira asteburua pasatzera eskean ateratako haur eta gazteak. Hain zuzen ere, Bertizera joango dira. Bi plan antolatu dituzte adinaren arabera: 6 urtetik 17 urtera bitarte, gaua pasatzera joango dira, gurasorik gabe; 6 urtetik beherakoak, berriz, igandean egun pasa egiteko aukera izango dute gurasoek lagunduta. Edozein kasutan ere, izena emateko epea otsailaren 26an bukatu zen.

Bueltan da mus denboraldia Igeldon

Pandemia ondorengo lehenengo mus denboraldia martxan da Igeldon. Otsailaren 10ean hasi zen Euskal Herriko Txapelketako saioarekin. 10 bikote aritu ziren lehian eta Ander Zubeldia eta Josu Fernandez izan ziren irabazleak. Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko sailkatu ziren. Martxoaren 18an jokatu dute

Deban.

Ordutik, ostiralero ari dira izaten partidak. Martxoko azken hiru ostiraletan, berriz, Lapa Txapelketa jokatu da: martxoak 17, 24 eta 31. Saio guztiak 21:30etan hasiko dira, Itsas Aurrean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu jokatzeko.

Loiolako Hipikak Igeldon izango du jarraipena

Prentsan azaldutako albistearen ostean, Herri Kontseilua Loiolako Hipikarekin jarri zen harremanetan. Bertako arduradunek jakinarazi diotenez, Hipikak Igeldon izango du jarraipena. Muntzabal ondoan lortu dituzte lurak, Gudamendi bidearen ondoan, eta leku aldatze lanetan ari dira orain. Beraien asmoa da lehenbailehen jardura baimena lortzea udaletxean eta martxan jartzea: «Lizentzia eskara aurkezteko lanean ari gara». Momentuz, kontsulta egin dutela eta zaldiak edukitzeko, ikuiluak jartzeko (desmontagarriak) eta pistako hondarra botatzeko ez dutela baimenik behar adierazi diote Herri Kontseiluari.

Loiolako kuartelen salerosketak eraginda, Hipikak Loiola utzi behar izan du. Hipikako instalazioak militarren lurretan zeuden eta orain militarrek lur horiek erabili nahi dituzte kuartel txiki bat eraikitzeko.



Gudamendi bidetik izango du sarrera.

Orain artekoa baino txikiagoa

Azaldu dutenez, Igeldoko Hipika orain artekoa baino txikiagoa izango da: «20 bat zaldi izango ditugu, horientzako ikuilu gutxi batzuk, kanpoko pista bat eta apartakaleku txiki bat». Loiolan zeuzkatzen jabetxe eta gainerako azpiegiturarik ez dute izango. «Gure asmoa herriarekin lotura estua mantentzea da, ahal den neurrian, eta Igeldon dituzuen taberna eta jabetxe bikainak erabiltzea», azpimarratu dute.

Kirola sustatzea helburu

Helburuen inguruan ere hitz egin diote Herri Kontseiluari: «Orain arte bezala jarraituko dugu Udalarekin elkarlanean hainbat jaialditan, ikastolekin lankidetzan, eskola kirolarekin, UDArekin...». Beraien eginkizun nagusia kirola sustatzea dela adierazi dute: «Irabazi asmorik gabeko kluba gara eta gure jarduna onura publikotzat hartzen da. Kirola sustatzea da gure helburua, batez ere gazteen artean (batez ere emakumeek eta gazteek egiten duten kirola da). Hipikak onura asko eskaintzen ditu autoestimuan, kontzentrazioan, erlaxazioan eta maila psikologikoan animaliekin kontaktuan egozgaririk».

Udalak informaziorik ez

Albistearen berri izatean, Herri Kontseiluak Udaltxean egin zuen kontsulta informazioa lortzeko. Bertatik adierazi dute ez dutela inongo informaziorik.

Lokala zabaltzeko pausoak ematen

Otsaila hasieran beste bilera bat egin zuten Herri Kontseiluak, Jubilatuek eta herriko hainbat gaztek. Lokala zabaltzeko eta berriz erabilgarri egoteko eman beharreko pausoak zehazten aritu ziren. Txukun jartzeko, ze lan egin behar diren eta zenbateko aurrekontua beharko den aztertzen ari dira. Lehen tasunak jarriko dira eta dirua ateratzeko ekintzak antolatu beharko dira. Argi geratu zena, ahalik eta laguntza gehien beharko dela auzolanean proiektua aurrera ateratzeko.

Bileran ere argi utzi zuten herri osoari irekitako espazio bat izango dela eta edonork izango duela aukera erabiltzeko. Herriari begirako ekintzak antolatzea erabiliko da.

Jolasak egongo dira martxoko ostiraletan, Parketarrak programarekin

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak Parketarrak izeneko programa jarriko du martxan berriro Igeldon.

Programa honen helburua da parke eta jolaslekuetan euskaraz jolasteko ohitura indartzea. Igeldoko kasuan, 6-9 urte bitarteko haurrei egongo da zuzendua, batez ere. Saioak martxoko hiru ostiraletan izango dira: martxoak 10, 17 eta 24an. Plazan izango da hitzordua 17:45etan eta euria egingo balu, kultur etxean egingo lirateke jolasak.

Programa hau martxoan, maiatzetan eta urrian egiten da eta 3-5 urte bitarteko haurrei eta gurasoei eskainitako jolasak ere izaten dira. Aurrerago txikienei zuzendutako saioak eskaintzeko aukera aztertzen ari dira.

Zozketaz aukeratu da BOE etxearen eroslea

Urtarrilaren 27an zozketa egin zuen Herri Kontseiluak Igeldoko Babes Ofizialeko Etxebizitza baten eroslea aukeratzeko. Zozketan parte hartze-ko 27 herritar apuntatu ziren (lehen-tasun talde desberdinetan banatuta) eta zozketa bidez erabaki zen lehen-tasun hurrenkera. Orain, zozketan aukeratutako pertsonak BOE etxe bat erosteko baldintzak beteko ez balitu, zerrendako hurrengoarenga-



na joko luke etxearen jabeak.

Zozketaren arrazoia gogorarazi du Herri Kontseiluak: «Etxebizitza horiek Kooperatiba baten bidez eraiki ziren eta horien banaketa zozketa bidez egin zen bere garaian, igeldotarrek lehentasuna izanik. Orain, etxebizitza horren jabeek hasierako baldintza berdinak errespetatuz egin nahi izan dute salerosketa Herri Kontseiluari horretarako duen zilegitasuna emanez».

«Jabeei eskatzen diegu modu berean egiteko salerosketa»

Beharra badagoela adierazi zu Herri Kontseiluak: «Igeldokoak diren eta Igeldon bizi nahi duten 27 lagun aurkeztu dira».

Herri Kontseiluak gutun bana bidali die BOE etxeetako jabeei eta etorkizunean etxea saltzeko asmoa izanez gero, orain egin den modu berean egiteko eta harremanetan jartzeko eskatzen die: «Gogoratu behar da etxe horiek Kooperatiba baten bidez sortu zirela eta irizpide batzuk jarraituz egin zela etxeen banaketa, igeldotarrek lehentasuna izanik, besteak

beste. Eta Kooperatibarekin batera, Herri Kontseiluaren papera funtsezkoa izan zen prozesu horretan. Orain, bide bat ireki da berriz hasierako printzipio horiek mantentzeko».

Gainera, lana egingo dagoela eta beharra ere badagoela nabarmendu dute: «Igeldokoak diren eta Igeldon bizi nahi duten 27 lagun aurkeztu dira, hain zuzen».

Zenbait kasutan, erabilera okerra

Kezkatuta ere azaldu da Herri Kontseilua: «Kezkatzen gaitu baita ere etxe batzuei ematen ari zaien erabilerak. Kontuan izan behar da Babes Ofizialeko Etxeetaz ari garela, betekizun batzuk bete behar direla nahitaez, eta ezin dela etxe hauekin espekulatu edota ezin direla hutsik eduki, besteak beste».

Errigorako produktuak eskatzeko aukera

Bat egin Errigora balioekin leloa izango du aurtengo udaberriko kanpainak. Errigoraren zutabeak baitira balio horiek: bertakoa izatea, euskara, auzolana eta nekazariarekiko bidezko harremanak.

Izan ere, kanpaina honetan eskainiko diren produktuak 'errigora balioak' identifikatzailea eramango dute; etiketak ziurtatzen du produktuak Nafarroako erdialdeko eta Erriberako jatorria duela, produktu hori elaboratu duen ekoizleak eus-

kara normalizatzeko plana abian jarri duela eta garatzen ari dela, ekoizlea Errigorak antolatzen dituen auzolanetako partaide dela eta ekoizpenean erabiltzen den osagai nagusia landu duen nekazariarekiko harremana bidezkoa izan dela, bitartekaritzarik gabekoa, gertukoa eta elkarlanean oinarritutakoa.

Euskararekiko konpromisoa ekoizle talde osora zabaltzeko da, eta hastapenetan 5 ekoizle baziren ere, gaur egun 23 dira bat egin dutenak.

Beste berritasun bat ere izango da aurtengoa, eta produktu berriak eskatu ahal izango dira: lekak kontserban, arroz integrala eta arbendolak.

Martxoaren 9tik 29ra

Eskaerak egiteko epea martxoaren 9an hasi eta 29an bukatuko da, eta Igeldoko banaketa maiatzaren 12an egingo da IKO kooperatiban, 18:00-20:00 bitarte.

Egin bat Errigorekin eta bete ezazu despettsa!

Batzarra egingo dute jubilatuek

Martxoaren 11n, Igeldoko Jubilatuen Elkarteko batzarra izango da. Goizeko 10:30etan eta 11:00etan jarri dute hitzordua, Itsas Aurren. Jubilatuen Elkarteko azkeneko batzarra 2021ko urriaren 24an egin zen.

Batzarraren gai-zerrenda honakoa izango da:

- Elkartearen izen aldaketa eta logotipo berriaren proposamena.
- Aurreko batzarreko aktaren irakurketa.
- 2022an egindako aktibitateen oroitz-txostena eta hauetan izan den bazkideen parte hartzea.
- 2022ko balantze ekonomikoa.

- 2023ko aktibitateen proposamena eta ekimen berrien bilketa.

- Beste gaiak eta galderak.

Elkarteko batzordeak gonbidapena luzatzen die bazkide guztiei batzarrean parte hartu dezaten. Ahalik eta bazkide gehien gerturatzea nahiko lukete.



Santa Agedako koplak kantari

Otsailaren 4an, Igeldoko Jubilatuen ekimenez, herriko etxe eta tabernetan lehen aldiz Santa Ageda koplak kantatzen atera ziren jubilatuen Kantujirako taldekoak. Euskal Herriko beste herri askotan bezala, beren makilekin

lurrari kolpeka, neguko lozorrotik udaberriari ate joka aritu ziren. Santa martiriari egindako koplak eta jendearen egunerokotasunari jarritako bertsoen arteko oroimen nahasia izan zen. Eusebio bertso-lariaren alaitasunarekin, Iker eta

Gurutze trikitilarien giroarekin, pozik ibili ziren parte hartu zuten zahar eta gazteak.

Ondoren, Dindin Elkartean afari ederra eta dantzaldi biziak eginez bukatu zuten Santa Ageda bezperako eguna.



«Ametza lortu nuen iaz lehenengo mailan debutatuta, eta etxean gainera»



Claudia Fernandezek Athletic B taldean jokatzen du gaur egun.

Claudia Fernandez pauso handiak emanaz ari da futboleko ibilbidea egiten.

Realaren bigarren taldeetik Athleticen bigarren taldera egin du salto orain eta bigarren mailan dabil lehian. Dena dela, lehenengo mailan jokatzeke aukera izan zuen Realarekin, eta baita Championserako sailkatzea lortu ere.

Gudamendik izar bat gehiago duela esan dezakegu.

Zure ibilbide ofiziala Añorgan hasten da, baina betidanik jokatu izan al duzu futboleko?

Bai, oso txikitatik. Añorgan 10-11 urterekin hasi nintzen eta mutilekin jokatzen nuen orduan. 3 neska ginen taldean. Infantiletan jada nesken taldea genuen eta hor jokatzen nuen, baita Eskola Kirolan ere. Eta asteen behin, Añorgako mutilekin entrenatzen nuen. Egia esan, mutilekin jokatze horrek asko lagundu dit, ondo etorri zaidala iruditzen zait.

Gero kadeteetan, futbol 11n hasi nintzen eta Ohorezko Kadete arte egon nintzen Añorgan.

Añorgatik Realera, eta han lau denboraldi egin zenituen bigarren taldean (2018-2022).

Hori da, 15 urterekin hasi nintzen Realaren bigarren taldean. Zain egon nitzen 15 urte bete arte, Real Sociedad B taldeak jokatzen zuen mailan jokatu ahal izateko. Kontuan izan behar da urte horretan sortu

zela Realaren bigarren taldea.

tzen konpetitzeko maila ona lortzen.

Eta berehala, taldearen bigarren denboraldian, liga-ko txapeldun izan zineten eta igoera lortu zuten Lehenengo Nazionalera.

Esan bezala, bigarren taldea 2018-2019 urtean sortu zen eta oso maila baxuan hasi zen jokatzeko. Hasierako bi urteak gehiago izan ziren entrenatzen ikastea eta taldea egitea. Baina Gipuzkoa osoko jokalaririk onenetakoak geunden taldean eta ia partidu guztiak irabazten genituen. Gainera, esperientziadun jokalariek zeuden. 15 urteko lau jokalaririk geunden eta 20 urte ingurukoak ere bazeuden. Bi urtetan, Lehenengo Nazionalera iritsi ginen.

Realean, lehenengo taldearekin jokatzeko aukera ere izan zenuen. Zer moduzko esperientzia?

Bai, azkeneko bi denboralditan bi taldeetan aritu nintzen (2020-2021/2021-2022). Dinamika lehenengo taldearekin egiten nuen, baina gero partiduak jokatu, gehienetan, bigarren taldearekin. Esperientzia aldetik sekulakoa izan zen. Tokatu zitzaizkidan Realaren urterik onenak. Championsa jokatzeko ere sailkatu ginen. Egia da oso partidu gutxi jokatu nituela eta oso gogorra izan zela pila bat entrenatzea eta ezin jokatzeko, baina adin horretako jokalaririk baten papera horixe da, prestatzen joatea, eta horixe tokatu zitzaidan. Hala ere, asko ikasi nuen bai teknikoki eta baita pertsonalki ere. Espainiako jokalaririk onenekin aritu nintzen.

Udaran, Athletic B taldera joatea erabaki zenuen. Zergatik?

Lehenago ere etorri zitzaidan eskaintza, baina 2. Batxilergoa egiten ari nintzen eta ikasketak etxean bukatu nahi nituen. Gero, baiezkota esan nuen aukerarik onena zelako; hemen baino aukera gehiago inon ez. Kontuan izan behar da Real B Athletic B baino bi maila beherago dagoela. Realean, bi taldeetan aritzen nitzen. Entrenatu, jokatu, talde dinamika... gehiena lehenengo taldearekin egiten nuen, baina gero partidu gehienak bigarren taldearekin, hau da, 4. mailan jokatzeko nuen. Sekulako alde dago eta ez zen ona niretzat, horrek ez zidan lagun-

Zer moduz Athleticean?

Oso gustora nago. Oso ondo zaintzen naute hemen. Egia da hasiera zaila egin zaidala, mailara egokitzea alegia. Sekulako maila dago, denak dabilta lehenengo mailara igotzeko lehia horretan eta gu oso talde gaztea gara. Athleticean filiala gara, gure helburua jokalariek prestatzen joatea da, ahaztea, eta ahal dela mailari eustea.

“Orain arte, lehenengo mailako jokalaririk baten urteko soldata minimoa 16.500 eurokoa zen. Orain, 18.000-20.000 artean jarriko dute”

DATUA: Gizonezkoen soldata minimoa 155.000 eurokoa da lehenengo mailan, eta 77.500 eurokoa bigarren mailan.

Zaila egongo dela dirudi, azken postuetan zabilazate... (otsailak 9)

Bai, hala da. Dena dela, puntutan berdinduta gaude batzuk eta gure asmoa bada urtea salbatzea. Bigarren buelta hasi besterik ez da egin eta partidu asko geratzen dira aurretik.

Taldea ez doa nahi bezain ondo... eta zu?

Ba ni lesio batetik nator, hilabete eta erdi egon naiz lesionatuta, baina gogotsu bueltatu naiz. Lehen esan bezala, hasiera gogorra egin zait, erritmoa hartzea kosta egin zait. Lehenengo urtea izanda, presioa ere sentitzen duzu, zure maila emango ote duzun, taldea ere ez duzu ezagutzen... Denbora behar da. Geroztik eta erosoago nago, baina oraindik ez naiz lasai jokatzera iritsi. Pixkanaka.

Athleticean lehenengo taldearekin egin zenuen aurrendenboraldia.

Aukera ikusten duzu leku bat izateko?

Orain ez dago nire burutan hori. Lehenengo urtea da hemen eta lan egiteko momentua da. Etorri behar badu, etorriko da. Aurrendenboraldikoa oso ondo etorri zait, lehenengo taldearen lezioa jasotzea baliagarria da.

Gizon/emakume konparaketan sartuta. Zure maila berean egongo balitz mutil bat, inguruan ezagun izango litzateke, medioetan emango zen bere berri... Zure kasuan nola izan da?

Ba nire kasuan, uste baino gehiago zabaldu da sare sozialak direla eta! Baina bai, ez da konparagarria inondik ere. Diferentzia oso handia da, klubetan ere bai, eta horrek haserretu egiten zaitu eta amorrua



Fernandez partidu batean.

CLAUDIA FERNANDEZ AZPEITIA

2003-07-11

Zenbakia: 33

Postua: Aurrelaria

2017-2018 Añorga KKE kadetea**2018-2022** Real Sociedad B**2021-2022** Real Sociedad
(hainbat partidu eta
Championserako sailkapena)**2022-Gaur egun** Athletic Club B**2022** aurrendenboraldia Athletic Club**Gaztea zara, 19 urte dituzu, ikasketekin jarraitzen duzu?**

Magisteritza egiten ari naiz, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 2. maila. EHU Donostian ari naiz distantzian. Hasita nengoen eta ez nuen lekuz aldatzen hasi nahi.

Orain Bilbon edo inguruan bizi zara?

Bai, Galdakaon bizi naiz hiru taldekideekin. Horretan klubak laguntza ematen digu ez ditzagun galdu gure irabaziak pisuan edo eguneroko ohiko gastuetan.

ematen du. Lan gehiago egin behar izaten dugu, demostratzeko, baloratzeko, eta lorpenak txikiagoak dira. Pauso txiki batzuk eman dira, baina maila berdinerara heltzearena ez da errealia. 20 urteko neska bat 12 urteko mutil batekin konparatzen da edo gure mailako jokalaria bat 14 urteko batekin.

Eta profesionalki, soldata eta baldintza aldetik nola dago egoera? Emakumeek futboletik bizitzeko aukerarik ba al duzue?

Orain liga berri bat sortu dute emakumeetan eta estatutuak ere berritzen ari dira. Orain arte, lehenengo mailako jokalaribaten urteko soldata minimoa 16.500 eurokoa zen. Orain, 18.000-20.000 artean jarriko dute. Horrek bizitzeko ematen dizu? Ez dakit... bakoitzaren egoeraren arabera ere izango da. Bizitzeko aukera ikusten dut goizetan lan eginez gero eta arratsaldetan entrenatu. Gizonezkoen soldatak urruti geratzen zaizkigu.

“Aurrera begira,
karrera bukatzea da
nire helburua
alde batetik,
eta bestetik,
futbolean nire mailarik
onena ematea”

Etorkizunari begira, zer nahiko zenuke lortu? Zein da zure ametsa?

Nire ametsa bete nuen iaz lehenengo mailan debutatzearekin, eta etxean gainera. Lehenengo mailara iristea zen txikitako ametsa eta lortu nuen. Gainera, Championsen sartu ginen. Gurasoek hainbeste urtetan egindako esfortzu horren ordaina ere izan zen eta oso pozik nago horrekin.

Aurrera begira, karrera bukatzea da nire helburua alde batetik, eta bestetik, futbolean nire mailarik onena ematea. Noski lehenengo mailan jokatu nahiko nukeela, baina prest nagoen momentuan iritsiko da. Hortik aurrera, oreka, egonkortasuna eta jarraikortasuna lortu nahiko nituzke. Karrera bukatzean ikusiko dut futbolean jarraitzeko moduan nagoen edo ez. Momentuz, lau urtetarako nago Athleticen.

Lan egiteaz gain, primeran pasatzen ari dira Eskolan

Bigarren hiruhileko honetan, zientzia arloa lantzen ari dira Eskolan, bakoitza bere mailara. Haur Hezkuntzako ikasleak, zentzumenak eta gorputza ikertzen ari dira. Lehen Hezkuntzako ikasleak berriz, gorputza, sukaldaritza eta materiarekin hainbat ikerketa egingo dituzte.

Danborrada eta Inauteriak

Baina dena ez da lana eta hainbat ospakizun ere izan dituzte. Urta-rrilaren 19an danborrada eskaini zuten. Danbor eta barrilak ederki astindu zituzten frontoian familia eta lagunen aurrean.

Otsailaren 17an, berriz, Inauteriak ospatu zituzten. Fikziozko pertsonaiekin mozorrotu ziren ikasle eta irakasleak. Pregoia, txupinazoa, emanaldiak, mozorro festa eta merendola egin zituzten.

Hainbat irteera eta antzerkia

Irteera batzuk ere egin dituzte dagoeneko: Euskadiko Orkestraren kontzertua ikusi zuten LHko ikasleek Miramongo egoitzan; 2. Ziklokoek kontzertu pedagogikoa izan zuten Atotxan; 4 eta 5 urteko Barraskiloek Eureka Museora egin zuten irteera; eta 1. Ziklokoak antzerki bat ikustera jaitsi ziren Antzoki Zaharrera.

Bestalde, otsailaren 14tik aurrera, antzerkiarekin hasi dira LHko ikasleak Anartzen eskutik. «Ea aurren zer prestatzen diguten!!!».

«Ikusten duzue, lan egiteaz gain, oso ondo pasatzeko aukera izango dugu hiruhileko honetan», adierazi dute.



Festa ederra, Inauteriak ospatuz

Otsailaren 18an ospatu ziren Inauteriak Igeldon eta eguraldiak lagunduta, festa ederra bizitu zuten elkartutako haur, gazte eta helduek. Goizean, herriko gazteek antolatuta, jolasak eta altxorraren bila izan zituzten umeek. Primeran pasa zuten eta neka-neka eginda ere bukatu zuten askok, altxorra aurkitzea ez baitzen lan errexia izan!

Ondoren, 41 lagunek bazkaria egin zuten kultur etxe kanpoaldean giro goxoa aprobetxatuz. Denen artean osatutako bazkaria izan zen, bakoitzak aurrez hitzartutako zerbait eraman zuen bazkarira, eta emaitza oso ona izan zela azaldu dute antolatzaileek.

Bazkalostean, desfilearen txanda izan zen. Superheroiak, Shaun arditxoaren kuadrila, Pikachu eta entrenatzailea... umorea ere ez zen falta izan!

Abestuz eta dantzatzuz bukatu zen festa kultur etxean.




UHARTEAK

Lurrean milioika uharte daude, era guztietakoak: batzuk sekulako herrialde handiak dira, beste batzuk harkaitz hutsak... Hainbeste daudenez, inork ez daki zehazki zenbat diren.

Uharterik handienak

Beheko irudietan, munduko zazpi uharte handienak ageri dira. Formen barruko zirkulu bakoitzak tamaina bereko lur-eremua adierazten du.

Groenlandia beste hiru uharte elkarturik bezain handia da. Bete eta zenbatu zirkulu guztiak, hiru uharte horiek zein diren jakiteko.





Groenlandia
(Ozeano Artikoa)


Sumatra
(Indiako Ozeanoa)




Honshu
(Ozeano Barea)




Madagascar
(Indiako Ozeanoa)



Baffin uhartea
(Ozeano Atlantikoa)



Borneo
(Ozeano Barea)



Ginea Berria
(Ozeano Barea)

Zirkulu bakoitzak gutxi gorabehera 50.000 km² ditu.

Lemurren lurraldea

Animalia jakin batzuk uharte jakin batzuetan bakarrik bizi dira libreki. Esaterako, Madagaskarren 100 lemur-mota baino gehiago bizi dira, hala nola:



Mahi
lemurrah




Sifaka
lemurrah



Aie-aie
lemurrah



Lemur
ilegorriah



Lemur mota bakoitzetik zenbat ikusten dituzu irudi honetan? Idatzi kopuruak ezkerrean.

Emakumearen eguna 2023

M8 asteazkena

17:00 plazan manifara
oinez jeisteko

18:15 Ezeizan kedada manifara
elkarrekin joateko

M7 asteartea

18:00 herria apaindu

M10 ostirala

17:00 ibilaldia Igeldon
zehir

19:30 korto emanaldia
eta mokadutxoa

M11 larunbata

19:00 beroketa
poteoa

20:30 afaria Calongen
(35€-tan goxo-goxoa)

Oharra: izen ematea
martxoak 5 arte

- Txapelako zerrendan
- 656008455 (Karmele)
- 605769567 (Ainhua)

